

# HIKEK MEREZI DIN/K!

## BOST ARRAZOI HIKE HITZ EITTEKO:

**1** Hikek hurrekun arteko alkarrizketatan egoki eta konfiantzan jarduteko aukerie ematen ziun/ziuk. Gaur egunin, Euskal Herriko leku batzuten (Azkoittixen, esate bateako) erregistro hau ohikue den/dek, mutillen artin, batiz bat.

**2** Hizketa-aniztasune, zuke eta hike jakittie eta ibiltzie, egokixe eta aberatsa den/dek; hiztun osuk eitten gatxiñ/gatxik edozein testuinguruten euskeraz jarduteko. Euskerik bere hizkuntze-erregistruk probetxuz ibilli eta haixekin komunikau ber likiñ/likik.

**3** Hike hitzeittie noka (neskai; adib., *aizan*) eta toka (mutillei; adib., *aizak*) eittie danez, bixek jakin berra zion/ziok, ondo hitzein nahi baldin badeu. Horrek Azkoittixen hauxe esan nahi diñ/dik: neskak hike ikisi eta eittie; mutillek noka're ikisi eta eittie, eta, danak, trakestu dan hike-jardune hobetzie.

**4** Neskak, hizkuntze-eskubide berbeak dittubela gogun izenda, mutillen aukera beak, gutxiñez, izen ber ditxiñabe/ditxiabe ikisteko eta ibiltzeko. Historixen ziher, hizkuntze-kontu hontan'e neskak diskriminaute eon dienez, noka-jardunei, batiz bat, danan gaiñetik bultzein ber zikon /zikok.

**5** Etzion/Etziok iñungo arrazoik hike zakarra eta, gutxixo, emakumintzat eztala fiñe justifikatzeko. Hoixek hikei eman izen zaizkon konnotazixo txarrak besteik ez dittun/dittuk izen, geure hizkuntzin aurka etxekalte jokatzie. Uztertu daigun, hortaz, hike konnotazixo onakin, hike dala hizketa-moru: **hurrekue, aberatsa, bizixe, genero-berdintasunen adierazlie, konfiantza-girokue, adierazkorra, gazte-hizkerako aproposa, guaixe...**

**Horreatik eta gehixoatik, hikek merezi din/k!**

